

Reynoa ' is different ', baita oposizioetan ere

Liburutegi-laguntzaileen kidegorako oposizio gile aritua naizenez (beharbada motelegia, nire inguruak dioenez), pozez saltoka hasi naiz Foru Komunitateko Administrazioak sei erdi-mailako liburuzain teknikari lanpostu huts, B mailakoak atera dituela jakin dudanean.

Deialdi osoa irakurri ondoren, txoraturik geratu direnak nire neuronak izan dira; izan ere, Nafarroa, barkatu!, Nafarroako Gobernuak saldu nahi digun Reyno-a is different.

Lehenik eta behin, gaitegia luuuuze-luuuuuzea da. 96 (laurogeita hamasei) gai, hain zuen, berariazko eta legeen inguruko atalen artean. Hori, agian, ez da jendearentzat esanguratsua izango, beste deialdi batzuekin konparatzen ez bada. Hona, bada, zenbat gai eskatzen diren antzeko lanpostuetarako: Alcalako Unibertsitatean 55, Coruñaakoan 41, La Lagunakoan 42, Kultura Ministerioan 69.

Nafarroan adina gai Espainiako Liburutegi Nazionalean eskatzen dute, artxibo, liburutegi eta museoetako fakultatiboen lanpostuetan; baina horiek, noski, A mailakoak dira, ez B mailakoak.

Bigarrenik, betiere beste deialdi batzuekin konparatuta, deialdia egiten duen erakundeak gairen bat bere eremuan kokatu ohi du. Reynoan atal espezifiko 22 gaik dute ondoko bukaera; haien egoera Nafarroan edo haien aplikazioa Nafarroako liburutegi publikoen sisteman. Harritzekoa, gutxienez. Deialdiaren arduradunei galdetuko nieke: hainbestekoa al da zuen Liburutegi Sistemaren zabalkundea (tokiko hedabideetan egiten denaz gain)?, hainbestetan aipatu al zaituztete kongresuetako aktetan edota argitalpenetan?, hain sakona al da zuen web-gunean ematen duzuen informazioa, ezen edozein izangaik hori guztia jaso eta sakon azter dezakeen?

Azkenik, harridurak mugaraino eraman nau irakurri dudanean beste hamalau gaitan (ez aurrekoak) izenburuari atxikita Nafarroan aplikatzeko proposamenak eskatzen direla. Eta berriz ere, deialdia egin dutenei galdetu nahi diet: zertarako proposamenak?, zuek antolatzen ez dituzuen zerbitzuetarako?, edota ez ote da gaizki funtzionatzen dutela eta ideia berriak behar dituzuela? Zintzoki esanda, nik uste nuen horiexek zirela, hain zuzen, Liburutegi Sareko arduradunen lana, baina, antza denez, izangaioi zerbitzua antolatzeko eskatzen diguzue, teoriarik sikiara.

Ba, horixe, azterketetan Reynoa is different.

Jose J. Calero. Bilbo